

# GARRAIO EGOKITUKO ZERBITZUA (OHIKOAK EZ DIREN JARDUERETARAKO)

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Mendekotasuna duen 65+ pertsona > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomoa izateko**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzuaren helburua da garraio publikoa erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonen atez ateko garraio-beharrak asetzea ([2.7.2.4 fitxa](#)). Zerbitzua ematen da mugikortasunari laguntzeko produktuak (gurpil-aulkiak, esku-oheak, taka-takak eta bestelakoak) erabiltzen dituzten pertsonen beharretara egokitutako ibilgailuen bidez, eta aukera ematen zaie garraio publikoaren bidez egin ezin dituzten joan-etorriak egiteko, ohikoak ez diren jarduerak egiteko lekualdatu behar dutenean.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Mugitzeko muga larriak dituzten pertsonak, **II. eta III. graduetan mendekotasun-egoeran** daudenak:

### II. gradua - Mendetasun larria

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, **egunean bizpahiru aldiz**, baina ez duenean zaintzaile baten etengabeko laguntza nahi edo ez duenean laguntza zabalik behar bere autonomia pertsonalerako. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 50 puntutik 74 puntura.

### III. gradua - Mendetasun oso larria

Pertsonak laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera egiteko **egunean hainbat aldiz**, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentSORIALA erabat galdua

duenez, beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar duenean. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 75 puntutik 100 puntura.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Mendekotasun larria duten mugikortasun-mugak egiaztatzea.
- Garraio publikoa erabiltzeko aukerarik ez izatea, ezta ibilgailu propio egokitua izatea ere eta, aldi berean, ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa ez eskatzea.
- Etxebizitzan bertan edo lehen mailako arreta emateko bizitoki-zerbitzu batean bizitzea.
- Behar bezala egokitutako ibilgailu propioa ez izatea eta, aldi berean, ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa ez eskatzea ([3.3.2](#)).
- Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea, eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Zerbitzua koordainketaren mende egon daiteke**, hau da, pertsonak zerbitzuaren zati bat ordaindu behar izan dezake bere diru-sarreraren eta erabilera-modalitatearen arabera.

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

**Foru Aldundien ardura** da garraio egokituko zerbitzua ematea

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** eska dezakezu informazioa.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)